

Lan borobila

INOIZ idatzi dut orriotan, jakina bada ere, Euskal Herrian tonaka dauden musika taldeen artean badi-rela, emaitza bereizgarria eta borobila lortu arren, sekula behar bezala ezagutzera ematea lortzen ez dutenak, ia izenez ere gogoratzen ez ditugunak. Aipatu ditzaket Norman, Anger, PAM eta beste asko; eta horien artean Kaskezur taldearen azken lana, Musikazuzenean-eko Koldo Otamendik gomendatu zidana.

Baztandar hauek bigarren diskoarekin ezagutu nituen 2011n, eta orriotan elkarrizketatu nituen *Gure jokua* zela medio. Eskemak apurtzeko egiten zituzten ahalegin eta lorpenek harritu ninduten erabat. Gai izan ziren rock klasikoa, funky eta psikodelia bar-barra lantzeko, Negu Gorriak taldeari keinuak egiteko zein azeleragailua zapalduta punk-rocka jorratzeko. Eta hitzetan irudimena muturrera eramane zuten, tarteka ia surrealismoa ukituz. Surrealismotik ere ez ziren urrun ibiliko, izenez bakarrik ezagutzen dudan estreinako *Itzulera kapsularik gabeko espaziora bidalitako azken zakurrak* diskoa grabatu zutenean.

Baina goazen oraingo *Igora* diskora, honako hau ere taldeak berak autoekoitzia. Laukoteak espaziora gauzak bidaltzeari utzi, serioago jolasten hasi eta lan borobila gauzatu du, Hans Krügerrek Subizan grabatua eta Karlos Osinagak nahastu eta masterizatua.

Diskoa zabaltzen duen *Haizea hartzera noa* asmo iragarlea bada ere, despistatu egin dezake: gitarra bihurriak melodiaren mesedean bai, baina lagun artean abesteko moduko pieza itsaskorra da, xinpatikoa. Despistatu diot, jarraian *Sonik*-ekin datorrelako lehen danbatekoa: Fugaziren tankerako instrumentu



Igora
Kaskezur

Autoekoizpena, 2013

zehaztapenez, Ama Sayren patroiko ahots erregistroak landu eta noise pieza borobilaz erditu dira. 90eko hamarkada aldarrikatzen jarraituz, *Zerutik lurrera* erritmo bereziko

power-pop harribitxia da, gitarrak bihurrituz doazen heinean ia espiralean eztanda egiten duena, itzela! *Bizitza robota*-k ez du arnas egiteko tarterik uzten: gitarra riff irmo batek gidatzen gaitu azkar eta indartsu amildegirantz. Eta heldu da etena, *Igora* instrumental pausatu sailkaezinarekin.

Baina oraindik ez dugu trenetik salto egin eta abiadura areagotuz doa berriro: *Izan ginen*-ekin mal-dan behera goaz erritmo are eta biziagoan, rock gitarreroa eta Australiako rock malenkoniatsu eta garratzarekin topo egin arte. Hortik aurrera bideari mantsoago ekingo diogu: *Noria baten bueltaka* noise-pop garbia edo oinarri oso indartsuko pop-rocka da; *Galdu gara* abestian Itoiz eta Xabi San Sebastian ekartzen dituzte gogora, nahiz eta oso modu agerian kantua apurtzen saiatu. Eta *Oreka*-n kantuen izenari zentzua eman nahian gitarra rockeroak, bihurriagoak, ahots xuxurlatuak eta zarata bera intentsitatearen laguntzaz uztar dute. 90eko hamarkadako noise-pop delakoa irudimenez eta irmotasunez erreibindikatzeko duen lan ederra! ■

Iker Barandiaran



Liburu azoka

Barakaldon, apirilaren 23tik maiatzaren 4ra herriko plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!